

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

399 zb.
www.getxo.eus

>> 2025eko Ekaina

Nabarmen^{tzekoak}

> 126 gaztek euskara sustatuko dute EuskarAbenturan

- > ZineGogoak-ek sexu eta genero aniztasuna zinemaren bidez hurbilduko du
- > Gazte Drama antzerki tailerraren ikasturte amaierako emanaldia

“Gidabaimena euskaraz” kanpaina

Gazteak autoaren eta ziklo-motorraren gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egitera animatzeko, Getxoko Udalak, Erandioko eta Basaurikoekin eta ALKARBIDE Euskara Zerbitzuen Bilgunearen laguntzarekin batera, *Gidabaimena Euskaraz* kanpainaren beste edizio bat jarriko du martxan. Udalaren laguntza gehenez 300 eurokoa izango da, ekimenarekin kolaboratzen duten udalerriko sei

autoeskoletako batean karne-taren azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazteen-tzat. Gainera, ohi bezala, 100 euroko hiru txartel zozketatuko ditu gasolina erosteko. Aurreko edizioan balea irabazi zuten hiru gazteek (Ane Durana, Peru Apraiz eta Tello Puig) uste dute gidatzeko azterketa teorikoa euskaraz egin ahal izatea pribilegioa eta urrats bat hizkuntzaren erabileraren normalizazioan dela.

BEKAK SARIAK

* **Reactivate 2025 programa**, Bilboko Novia Salcedo Fundazioak deitua eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enplegarritasuna hobetzeko. Langabezian edo enplegu-hobekuntzan dauden EAEko 146 gazte jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta Lanbiden izena emanda badaude, unibertsitate-gradu ikasketak, heziketa-zikloak... badituzte edo goi-mailako ikasketen azken urtean egiten ari badira. 5 hilabeteko praktikak izango dira, eta 863,34 euro gordin hilean (asteko 25 orduengatik) eta 1.208,67 euro gordin hilean (35eko). Informazio gehiago, hemen: Novia Salcedo (tel.: 944 255 959 eta <https://labur.eus/o3oo2luf>)

* **XVII. Bizkaidatz literatur saria**, Foru Aldundiak 16 urtetik gorakoentzat deitua eta amaitu gabeko kontakizun bat bukatzean datzana (euskaraz eta gaztelaniaz). Lanen banaketa: irailaren 11ra arte. Informazioa eta oinarriak: <https://labur.eus/n1vfu6sw>

Romoko Gaztelekuaren programazioa Ekaina

GureGune gazteleku

Hilak 7, larunbata: ESKULANA: SLIME
Hilak 8, igandea: EKINTZA: FILMA
Hilak 13, ostirala: SUKALDARITZA: PINTXOAK
Hilak 15, igandea: SUKALDARITZA: IRABIAKIAK ETA KIROLA
Hilak 17, asteartea: JOLASA: QUIÉN QUIERE SER MILLONARIO
Hilak 21, larunbata: ESKULANA: BUZTIN POLIMERIKOA
Hilak 25, asteazkena: JOLASA: ABENTURA PARKEAN
Hilak 27, ostirala: IRTEERA: HONDARTZA

Uztaila

Hilak 1, asteartea: ASANBLADA: IRAILEKO ETA URRIKO PROGRAMAZIOA
Hilak 5, larunbata: ESKULANA: KANDELAK
Hilak 11, ostirala: IRTEERA: IGERILEKUAK
Hilak 13, igandea: SUKALDARITZA: BROTXETAK
Hilak 15, asteartea: SUKALDARITZA: JOGURT FRUTADUNA
Hilak 17, osteguna: JOLASA: UR-JOLASAK
Hilak 18, ostirala: IRTEERA: KOLTXONETAK
Hilak 23, asteazkena: EKINTZA: PICNIC
Hilak 26, larunbata: FESTA: IKASTURTE AMAIERA
Hilak 30, asteazkena: SUKALDARITZA: IRABIAKIAK

Algortako Gaztelekuaren programazioa Ekaina

GauEgun gazteleku

Hilak 6, ostirala: ESKULANA: IKURRIN FEMINISTA
Hilak 7, larunbata: SUKALDARITZA TAILERRA: NATXOAK GUAKAMOLEAREKIN
Hilak 11, 18 eta 25, asteazkena: TAILERRA: ANTZERKIA
Hilak 13, ostirala: TORNEOA: PING-PONG
Hilak 14, larunbata: SUKALDARITZA TAILERRA: FRUTAZKO IRABIAKIAK
Hilak 20, ostirala: ESKULANA: AUTORRETRATUA
Hilak 27, ostirala: IRTEERA: SURF

Uztaila

Hilak 5, larunbata: SUKALDARITZA TAILERRA: CROISSANT GAZIA
Hilak 6, igandea: ASANBLADA: IRAILEKO ETA URRIKO PROGRAMAKETA
Hilak 9, asteazkena: TORNEOA: FUTBOLINA
Hilak 11, ostirala: ESKULANA: KAMISETA PERTSONALIZATUAK
Hilak 16, asteazkena: TORNEOA: SASKIBALOA
Hilak 19, larunbata: IRTEERA: NEW DIVERSION PARK
Hilak 26, larunbata: SUKALDARITZA TAILERRA: IZOTZ-EDARIA
Hilak 30, asteazkena: UDAKO JAIA: MERENDOLA



126 gazte euskara sustatuko dute EuskarAbenturan

Euskal Herriko 126 gazte (horietatik bost getxotarrek) parte hartuko dute 2025eko EuskarAbentura Espedizioan, izen bereko elkarteak antolatuta, hainbat entitatearen laguntzarekin, tartean Udalarena. Aurrekoetan bezala, oinez eta euskaraz zeharkatuko dute Euskal Herria, oraingoan 2008 eta 2009 urteetan jaiotako gazte euskaldunek, begiraleekin batera.

Euskal geografia, kultura eta historia lagunartean ezagutzera eramango dituen oinezko espedizioa uztailaren lehen abiatuko da Atharratzetik eta hilaren 31ra bitartean, Getxora heldu arte, probintzia guztietako partaideek 31 etapa osatuko dituzte, Done Jakue

bide ezberdinak jarraituz.

Helburuak

Espedizioaren helburuak dira gazteen artean euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea, gazte euskaldunen sareak sortzea eta elikatzea, eta Euskal Herriko natura-ondasun eta ondasun historiko nahiz kulturalen transmisioa bermatzea. Horiekin batera hainbat balore, jarrera eta gaitasun landuko dituzte gazteek, hala nola, parekidetasuna, bizikidetzatza, ardura, autonomia, bizi-ohitura osasuntsuak, ingurumenarekiko begirunea eta turismo eredu jasagarria.

Ibilbidea eta jarduerak


Hiriburu guztiak ez ezik,

UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutako guneak bisitatuko dituzte kideek; bai eta basoak, hondartzak, museoak, gari-soroak, leizeak, portuak, gazteluak, belazeak, monumentu nahiz eraikin enblematikoak, herriak, gatzagak, baserriak... Aldi berean, eduki anitzeko mintegi, tailer eta ekimenetan parte hartzeko aukera edukiko dute gazteek eta hainbat esparrutako profesionalak (musika, soziolinguista, antzerkia, bertsolaritza, kazetaritza, dantza, literatura, kirola...) aldiro-aldiro batuko dira espediziora gazteekin ordu batzuk konpartitu eta bere jakintzak elkar trukatzeko, era horretan esperientzia aberastuz.

ZineGogoak-ek sexu eta genero aniztasuna zinemaren bidez hurbilduko du

Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Zinegoak elkarteak ZineGogoak hezkuntza ekimena antolatu dute lehen aldiz Getxon, gazteei sexu aniztasunari eta genero identitateari hainbat begirada emateko eta ikus-entzunezko hizkuntzaren eta narratibaren oinarriko elementuetara hurbiltzeko aukera eskaintzeko.

Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxei zuzendutako hezkuntza-proiektua ekainaren 13an gartaruko da Romo Kultur Etxean.



Goizeko zine-saioa izango da, eta DBHko 4. mailako 80 gazte inguruk hartuko dute parte, Artaza-Romo BHI ikastetxeak. Gazteriako zinegotzi Mihaela Jilavuk adierazi duen bezala, “bigarren hezkuntzako azken ikasturteko ikasle guztiak animatzen ditugu dibulgazio jardura honetan parte hartzera, sexu aniztasunari eta genero identitateari begirada desberdinak emateko aukera eskaintzeko helburuarekin. Horrela, ikus-entzunezko hizkuntzaren oinarriko elementuetara hurbilduko dira”.

Gazte Drama antzerki tailerraren ikasturte amaierako emanaldia

Romo Kultur Etxeak Gazte Drama taldearen ikasturte amaierako emanaldia hartuko du ekainaren 18an, asteazkenean. Algortako Gaztelekuan azken hilabeteetan gauzatu den proiektua da, eta 11 eta 15 urte bitarteko 7 neskatok eta 5 mutikok parte hartu dute.

Sonia Andrea Castro antzerkigile eta ikuspegi komunitario-ko arte eszenikoetako irakasleak dinamizatuta, 19:00etatik aurrera, *El baile de las emociones. Un viaje poético por la humanidad* antzeztuko dute.



“Jarduera hau antzerki komunitario, parte hartzaile, pedagogiko eta terapeutikoa izatetik harago doa. Etikan eta elkartasunean oinarritutako metodologia bizia da. Gizartea eraldatzeko antzerki bat da, non pertsona guztiak berdina bezala bizi eta sentitzen diren, eta ez dago diskriminazioari leku egiterik. Ideia horren arabera, denok gara artistak eta antzerkia eta, oro har, artea erabil dezakegu gizartea eraldatzeko bide demokratiko gisa”, azaldu du. Sarrera doakoa izango da.